

MOCIÓN AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO

MOZIOA,

DE

.....(e)ko

.....

UDALEKO OSOKO BILKURARI ZUZENDUA

D./Dña.....,
en representación de la asociación DMD-DHE
(Derecho a Morir Dignamente-Duintasunez
Hiltzeko Eskubidea) viene a formular para su
aprobación la siguiente Moción en base a la
siguiente:

.....
jaunak/andreak, DMD-DHE (Derecho a Morir
Dignamente-Duintasunez Hiltzeko Eskubidea)
elkartearen ordezkaria den aldetik, mozio hau
aurkezten du, onartua izan dadin, hurrengo zioen
ildotik:

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS.

El debate sobre la eutanasia, desde el punto de vista de la bioética como del derecho, lleva sucediendo en nuestro país y en los países de nuestro entorno durante las últimas décadas; debate que se da tanto en los ámbitos sanitarios y académicos como en la sociedad, y que se ha avivado periódicamente a raíz de casos personales que conmueven a la opinión pública.

Así, después de más de 35 años de intenso debate social y político sobre la vida, la muerte y el derecho de cada persona a poner fin a sufrimientos intolerables sin perspectiva de curación o mejoría, tras la gran labor en estos años de las organizaciones de la sociedad civil luchando por esta regulación, y luego de varios intentos fallidos, el año 2021 ha finalizado con la aprobación y publicación de la ley que regula la eutanasia, Ley Orgánica 3/2021, de 24 de marzo, que entró en vigor el pasado 25 de junio.

La Ley de Eutanasia se ha sancionado con un amplio apoyo de la cámara del Congreso y Senado y, según las encuestas, viene respaldada por más del 80 % de la población vasca.

La aprobación de esta ley despenaliza la ayuda a morir a personas enfermas cuando así lo soliciten, en determinadas situaciones y en determinados supuestos muy definidos, y sujetos

ZIOEN AZALPENA

Azken hamarkadetan nabarmen garatu da eutanasiari buruzko eztabaida –bioetikaren zein zuzenbidearen ikuspegietatik–, gure herrialdean eta ingurukoetan, eta ez bakarrik esparru akademikoan eta osasunekoan, baita gizartean ere; zenbait kasu pertsonalek, aldian-aldian gertatzen direnek, astindu egiten dute iritzi publikoa, eta berpiztu eztabaida.

Horrenbestez, 2021ean onetsi eta argitaratu da, behingoz, eutanasia arautzen duen legea (martxoaren 24ko 3/2021 Lege Organikoa), zeina urte bereko ekainaren 25ean jarri baitzen indarrean; gertakari horren atzean 35 urtetik gorako eztabaida sozial eta politiko bizi bezain luzea dago, bizitzari, heriotzari eta sendatu edo hobetzeko perspektibarik gabeko sufrimendu jasanezinei amaiera emateko dugun eskubideari buruz, baita gizarte zibilaren erakundeek erregulazioaren aldeko borrokan egindako lan itzela, eta, azkenik, legea aurrera ateratzeko hainbat saio, kale egin izan zutenak.

Kongresuak eta Senatuak Eutanasiaren Legea onetsi dute, ganbera bien babes handia lagun; horrez gain, inkesten arabera Euskadiko biztanleen % 80k baino gehiagok babesten du legea.

Lege honek despenalizatu egiten du hala eskatzen duten gaixoei hiltzen laguntzea, egoera jakin batzuetan, eta parametro oso zehatz batzuen mende, betiere erabakia hartu duen

a garantías que salvaguardan la absoluta libertad de la decisión descartando presión externa de cualquier índole; así mismo, regula las condiciones y procedimientos por los que se puede acceder a esta solicitud de ayuda a morir, y la incluye en la cartera común del Sistema Nacional de Salud y de las Comunidades Autónomas.

El texto, por tanto, introduce en el ordenamiento jurídico un nuevo derecho individual: el derecho

a la eutanasia, amparando así la autonomía y la libertad del/a paciente, al mismo tiempo que se garantiza la seguridad jurídica y el respeto a la libertad de conciencia del personal sanitario llamado a colaborar en el acto de ayudar a morir.

Esta recién aprobada Ley sitúa a España en cuarto lugar, en Europa, en regular el derecho a una muerte digna, y podemos afirmar, que con este nuevo derecho civil nuestra sociedad es ahora más libre.

Tras su paso por el Senado y su aprobación definitiva, ya sólo cabe que las administraciones la desarrollen y, asimismo, habiliten los mecanismos oportunos y necesarios para dar la máxima difusión a la Ley de Regulación de la Eutanasia, promoviendo el conocimiento de este nuevo derecho y las condiciones y garantías de acceso a toda la ciudadanía.

Por todo lo expuesto, y porque es necesario el compromiso de los Ayuntamientos, en tanto administraciones más cercanas y más capacitada para transmitir una pedagogía cívica que logre ensanchar el derecho de los ciudadanos y las ciudadanas.

Por todo ello, presentamos para su debate y aprobación la siguiente:

MOCIÓN

El Pleno del Ayuntamiento de.....

.....
insta al Gobierno del mismo a realizar, en colaboración con las entidades de defensa de la muerte digna, campañas informativas, charlas divulgativas y materiales de difusión accesibles en

pertsonak erabateko askatasunez jokatu duela bermatuta, inolako kanpo-presiorik gabe. Halaber, legeak hiltzeko laguntza eskatzeko bete beharreko baldintza eta hura bideratzeko prozedurak arautzen ditu, eta Osasun Sistema Nazionalaren nahiz autonomia-erkidegokoen zorro komunetan sartzen du eskubide berria.

Horrenbestez, legearen testuak eskubide indibidual berri bat gehitu dio ordenamendu

juridikoari, eutanasiarako eskubidea, alegia; hartara, pazienteen autonomia nahiz askatasuna babesteaz gain, segurtasun juridikoa eta kontzientzia-askatasunarekiko errespetua bermatzen dizkie hiltzen laguntzera deitutako osasun-langileei.

Lege onartu berriari esker, Espainia heriotza duinaren eskubidea arautzen duen Europako laugarren estatua da. Eskubide zibil berriari esker, esan dezakegu gure gizartea askeagoa dela orain

Senatuko izapidea igaro eta behin betiko onartu ondoren, administrazioei legea garatzea eta Eutanasia Arautzeko Legea ahalik eta gehien zabaltzen laguntzeko beharrezko mekanismoak abiaraztea dagokie, hartara herritarren artean eskubide berria eta hura baliatzeko bete beharreko eskakizun eta bermeak ezagutarazteko.

Aintzat hartuta aurretik azaldutako guztia, eta baita udalen konpromisoa beharrezkoa delako, herritarrek hurbilen dituzten administrazioa diren aldetik, bai eta herritarren eskubideak ahalbidetuko dituen gizalegezko pedagogia transmititzeko gaitasun handien dutena ere.

Horregatik guztiagatik, beraz, mozio hau aurkezten dugu, eztabaidatu eta onesteko:

MOZIOA

.....

.....(e)ko
Udalaren Osoko Bilkurak eskatzen dio Udal-Gobernuari, herritar guztiei zuzendutako informazio-kanpaina, dibulgazio-hitzaldi eta hedapen-materialak egin ditzala, heriotza duina

equipamientos municipales, dirigidas a toda la ciudadanía, sobre el nuevo derecho a una muerte digna, contemplado en la Ley de Eutanasia, así como sobre el Documento de Voluntades Anticipadas de acuerdo a lo establecido en la LEY 11/2016, de 8 de julio, de garantía de los derechos y de la dignidad de las personas en el proceso final de su vida aprobada por el Parlamento Vasco.

El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno del mismo a realizar acciones formativas dirigidas a las profesionales de los servicios sociales en lo relativo al derecho sobre muerte digna, ley de eutanasia y Documento de Voluntades

Anticipadas, de manera que puedan informar y asesorar a la ciudadanía al respecto.

El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno del mismo a trasladar a las Residencias de Mayores dependientes tanto del Ayuntamiento como de la Diputación esta resolución, instándoles a incluir en los protocolos de acceso un ítem sobre el DVA, si lo tienen realizado y de no ser así, facilitar su otorgamiento.

El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno del mismo a llevar a cabo las acciones oportunas para la recepción en el Registro General y en los Registros Auxiliares del Ayuntamiento de los Documentos de Voluntades Anticipadas, y a su remisión al Registro Autonómico de dichos Documentos de Voluntades Anticipadas recibidos.

defendatzen duten erakundeekin batera, –eta udal-ekipamenduetan herritarren esku jarri ditzala–, batetik Eutanasiari buruzko Legeak jasotzen duen heriotza duinaren eskubide berriari buruz, eta bestetik, Aurretiazko Borondateen Dokumentuari buruz, Bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna bermatzeari buruzko uztailaren 8ko 11/2016 Legean (Eusko Legebiltzarrak onartua) xedatutakoaren ildotik.

Udalaren Osoko Bilkurak eskatzen dio Udal-Gobernuari, heriotza duinaren eskubideari, eutanasia-legeari eta Aurretiazko Borondateen Dokumentuari buruzko prestakuntza eskaini diezaiela gizarte-zerbitzuetako profesionaliei,

hartara herritarrei horiei buruzko informazioa eta aholkua eman ahal diezaieten.

Udalaren Osoko Bilkurak eskatzen dio Udal-Gobernuari, ebazpen honen berri helaraz diezaiela Udalaren zein Foru Aldundiaren mendeko adinekoen egoitzetara, eta baliabide horiek baliatzeko protokoloetan ABDari buruzko atal bat txertatzeko, ABD egina dutenen kasuan, eta egin ez dutenei hura formalizatzeko bidea errazteko.

Udalaren Osoko Bilkurak eskatzen dio Udal-Gobernuari, Udalaren Erregistro Nagusian eta lagungarrietan Aurretiazko Borondateen Dokumentuak jasotzeko aukera eskain dezala, bai eta gero dokumentu horiek Autonomia Erkidegoko ABDen Erregistrora bidaltzeko ere.